

**TATIANA GORICHEVA**

Perestroika, glasnost, Mijail Gorbachov... Aspaldion bularreko umetxoak be entzun izan dabez berba oneek. Izen orreen inguruan olako aldakuntzen soñua sentitzen dogu guztiok. Sobiet Batasunean aize bolada barri freskuak puzka sendo ari dira. Baita ekialdeko Europan zear be.

Gambio oneetan, beste arrazoi ta indarren artean, kristau erlejinoaren eragina oso nabarmena danik, ezin ukatu. Tatiana Goricheva lekuko. Bere testigantza zirraragarria. Kultura andiko emakumea dogu berau. Filosofian eta radioteknian goi mailako ikasketak egina. Nihilismo mundu baltz eta iluntsutik, 26 urte ebazala, Kristoren argira biurtua. Gorriak jasan ondoren, Moskuko Olinpiada bezperetan, bere Rusia maitagarritik jaurtia ta orain Parisen bizi da.

Gaur egun 42 urte ditu gainean. Bere liburuetan ikusten danez, jakin badaki Europako ekialdeko eta mendebaleko arazoak eta utsak, esperantzak eta esperientziak azaltzen eta salatzen. Baita mundu bi oneetako sustrairik sakonenak billatzen be.

Ekialdeko Europaren egoera

Ekialdeko Europa, KGBren kontrolpe gogorrean ari da dantzian. Azkenengo 80 urteotan Russian, beintzat, ez da beste musika-

rik entzuten. Musika tristea eta penagarria. «Azurretarainoko bildurra, mesfidantza ezinbestekoa, guzurra zitala. Orixe besterik ez da KGB» Olako erakunde zatarraren aurrean Solzhenitsyn aolkua onena: «KGBri ezertxo ere ez sinistu, ez izan ezeren bildurrik, ta ezertxo ere ez eskatu».

80 urteotan, erlijinoa zapaltzen eta baztertzen eginalak egin arren, erlejinoa inoiz baino indartsuago agertzen da intelektualen artean. «Marxismo-leninismoak ez dauka erantzunik gizonen arazo sakonentzako. Rusian olerkariak eta idazlariak, zientzilariak eta filosofoak sailean bihurtzen ari dira kristau federa. Nihilismotik idealismora eta idealismotik Eleizara. Orixe da Rusiako intelektua-len bidea. Ori da progresista izatea ta ateo izatea, ostera, atrasurik itsuena ta bildurgarriena. Sozialismoaren izenean jasandako injustiziak eta masakreak ikusita, marxismo-leninismoak egin dau berea. Ez dauko existitzeko eskubiderik be».

Alkola, dibortzioa, abortua. Orra or, batez be, Rusiako emakumeen ondamena. «%100 vodka botela baten atzetik ariñeketan dabil». Tatianak berak be esperientzi latz ori barru barrutik ezagutu izan dau. 26 urte betetzeko ta munduko gozamen eta lizunkerietan naskatuta. Ta fedearen argiari esker, ez dau bere burua urketuko. «Ixe aste azken guztietan mozkortuta. Aragikeri eta lizunkerietan amairik gabe. Gaur bategaz eta biar beste bategaz. Iru bider dibortziatuta ta beste orren beste abortu. Zenbat nire ikaslagun olan bizi ondoren gogaituta, euren burua urketu izan daben! Ni neu, yoga egiten asi nintzan. Ta liburu baten Gure Aita otoitza ekarren eta sei bidar errepikaturik, egiazko Jaungoiko biziaz aurkitu izan nintzan. Barne-barnetik aldatuta. Orduntxe asi nintzan pertsona izaten eta pertsonak maitatzen. Baita arbolak, arriak, lorak, abereak, mundu guztia Jaungoikuaren graziz jantzirik sentitzen neban. Aragikerizko artuemonak guztiz itzi nebazan. Jaungoikuagana bihurturik, klaru ikusten asi nintzan, ez bakarrik arimaz baita gorputzez be garbi jokatu bear nebala. A zelako poza eta zelako itxaropen goxua sortu ziran nire biotz barnean».

Rusian nonai espiritu egarria sentitzen da. Ez edozelako espiritu egarria. Kristau federa biurtzen da jendea. Fede konkretua, Eleizaren fedea. «Ateismoa desagertzen doa, eriotza bizitzaren

aurrean desagertzen dan antzera. Itzelezko izeberg galanta urtzen ari dala, dirudi. Fenomeno onen ondorioak sinistu ezinezkoak dira. Eleizaren samurtasunez beteriko amatasuna aurkitu ondoren, badakit ez jatala inoiz be Eleizaren babes faltako. Eukaristia eta beste sakramentuak bizi dabezan eleizarrak, ez dira inoiz be inpernuko indarren erpetan kikiilduko. Jaungoikuak ez dau nai gu esklabu izaterik, ezta seme utsa izaterik be, bere adiskide kutunak izatea baino. Jaungoikuak utsaren truke nai dau guk maitatzea, berak gu maite gaituan antzera».

Mendebaleko egoera

Tatiana Gorecheva, 1980. uztailaren 20an iristen da Viena iriburura. Orduetik ona Parisen bizi da ta orain naiko ondo ezagutzen ditu mendebaleko gizartea eta Eleiza. Laster konturatzen da emengo egoeraren arriskuaz. Alde batetik antropozetrimoaren itsutasunean liluratuta ta bestetik kontsumoaren ugaritasunean itota. Ondorio nabariera, jendea aspertuta eta gogaituta. Batez be gaztedia. Barneko askatasunik bage, ara ta ona, erdi galduta, zorionaren bila. «Mendebaleko jendea gauza arin eta azalekoetan emoten dau denpora ta ez gizon-emakumeon arazo andietan. Jaungoikuari buruz eta gizonaren bizitzaren zentzuari buruz ez dau inok barbarik egiten, ezta eleiz-gizonak eurak be».

Iru edo lau anekdotetan egiztutzen ditu bere iritxiak. Bein, Frantziko gazte talde batekin, mendira doa Tatiana abade bat talde orren buru dala. Ta abade orrek bere itzaldian ez dau Jaungoikuaren izena aitatu be egin. Pregunta au egiten dautso Tatianak abadeari: «zelan ez dozu munduaren edertasunaz Jaungoikuari buruz ezertxo be esan?» «Ba, bakarrik ez geratzen arren» izango da abadearen erantzuna. Tatianak orduan: «Baina bakartadea ez da inoiz be pekatu izan».

Beste bein, lenengoz telebisinoan erlijio programa bat ikusi ondoren, Tatiana ernegauta protestaka asten da: «Eskerrak emoten dautsedaz Jaungoikuari, Rusian telebisinoko erlijio programari ez dagoelako» Berealaxe konturatu nintzan ze arriskutsua dan Jaungoikuari buruz berba egitea. Programa aretan dana zan berba politak eta utsak. An ez egoan Jaungoiko esperientziarik. Ez dago

berbarik, bizitzaren berbea bezelakorik. Rusiako atsotxo batek mendebaleko teologu guztiak baino geiago daki erlijio gaietan».

Mendebaleko gizarteari eta Eleizari otoitza eta kontenplazioa falta jakoz. Programazioak eta bilkerak bigarren mailan ipini bearrean aurkitzen gara. «Historiaren motorra ez da iraultza, ezta ekonomiaren goraberak be, otoitza da historiaren ardatza eta motorra. Barriro be monastegiak izan behar dabez Eleizaren zuta-beak. Liturgiak izan bear dau gure teologia, gure etika eta gure estetika be bai. Eukaristian, esaterako, gogaitzen danak, ez dau sinismenik. Otoitza egiten daben barne edertasuna ikusi izan dot».

Ekialdeko Eleizari etorkizun obeagoa ikusten dautso mendebalekoari baino. «Nere aberriko Eliza kurutze bidea egiten ari da ta ortik datorko bere itxaropena eta gloria. Rusiako gaztedia bere bizitza galtzeko prest dago arimea salbatzearren. Mendebaleko eleiztarrek Jesusen kurutzea lurperatuta dauke». Naizta kritika gogorrek egin, eleizaren amatasuna samurkiro onartzen dau. «Nik neuk Eleiza maitatzen jarraituko dot, zeruraino. Len Eleiza erasotuan eta pobrean bizi nintzan, orain, barriz kontsumo gizartean itota aurkitzen dan Eleizan».

Veni et vide

Ama Rusiaren alaba dogu Tatiana Goricheva. Barne sakoneko emakumea. Ez jako erreza mendebaleko feministekin alkartzea. Olako emakume bat ezin da sortu mendebaleko kontsumo gizarte nasaiari. Dostojevskiren edo Tolstoiren edo beste ainbat rusitarren mendua eta odola daroa Tatianak bere zanetan. Ekialdeko barne mistikaz beterik bizi dau bere kristau fedea.

Biotzaren taupaden otsei, buruaren argudioei baino leku geiago damotso. Ekialdeko eta mendebaleko kristautasunaren diferentziak, esaera bi onetan laburtzen ditu. «Tolle et lege» izango litzake kristau mendebaltarren slogana. Eta ekialdeko eleiztarrena, ostera, «veni et vide». Bide au aukeratzen dau Tatiana Gorichevak bere kristau fedea bizitzeko. Zorionez, Ebanjelioaren bidea be orixe da.

A. Olea